

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Tantaitik txarara

BEREZKOAK, naturalak edo teknikoki jatorrizkoak deitzen diren basoak ziren hasieran. Gero nekazaritzaren eta abeltzaintzaren etorriak murriztu egin zituen. Ondorengo industrietan beren premietara makurtu zituzten: su-egurretarako, ikatzetarako, zuretarako... Batez ere burdingintzak eta ontzigintzak lotzen zituzten basoen emanak. Industria hauek sustatu eta zabaldu ahala behar-beharrezko zuten egurretik nahi adina izateko, basoaren erabilera arautzera eta hauen jabeekin hartu eta emanak lotzera egin zuten.

Burdinarena eta itsasontziena, bi industriok eragin izan dute eta mugatu gure basoen izaera. Txara eta baso-tantaiak edo baso-lizarrak ziren nagusi.

Tantaien edo lizarren basoak jatorrizko basoaren ondorengo naturalak dira. Oso-osorik utzitako zuhaitzak dira bertan eta etxegintzarako eta batez ere itsasontzigintzarako behar ziren. Asko jota, inausketa ari-

nen bat eta bakantzeak egingo ziren bertan. Ehundik gora urte aise zituzten zuhaitzak banaka botako ziren eta hark utzitako tartean berriak aldatu.

Txara hitzak zuhaixka esan nahi du eta txara edo txaradi, zuhaixkez osatutako basoari deitzen zaio. Zein espeziez osatua baino zein formako landareak dituen adierazten du: zuhaitzik ez, landare tikiak. Txaran landareak urte gutxiro mozten ziren. Diametro txikiko enbortxoak etekin handia ematen zuen orduan: iduritarako, saskigintzarako materiala, eraikuntzarako-eta arba jendea, su-egurretarako, abereen bazka... Tarteka arraseko mozketa egin eta basoa erabat soiltzen zen. Gero moztutako ipurdietatik sortutako altsumaz eta pujez berrituko zen. Kimu berri hauek hazi ahal izateko, ordea, abererik ez zen bazkatu behar baso horietan; hauek ez ziren tuntun memelo, eta punta berritik punta berrira gozo jardungo zuten.

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Estraperloa

Dagoenerako ezin da tabakoa (*Nicotiana tabacum*) nonahi erre. Erretzearen aurkako borrokak hartu duen bideak nora garamatzen ez dakigu. Eta badaezpadako lanak abiatu dituen jenderik bada. Marihuanarekin (*Cannabis indica*) zabaldua den bezala, batzuk tabakoa erein, landu eta etxean ondu, lehortu eta erretzeko prestatzen hasiak dira. Estraperloaren sasoia da.

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxa: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net